



Giza Eskubideak eta Administrazio Publikoa Master Ofiziala

Giza Eskubideak eta Administrazio Publikoa deritzon Master Ofizialak giza eskubideen inguruan adituak diren pertsonen heziketa edo prestakuntza bilatzen du. Prestakuntza juridikoa duten pertsoneri edo, bestela ere, giza eskubideen politikan interesa duten bestelako pertsoneri zuzenduta dago. Edonola ere masterrak eduki juridikoa dauka, nahiz eta irakaskuntza eta metodologia ikasleriaren ezaugarrien arabera moldatuko diren, batez ere prestakuntza juridiko hori ez daukaten pertsonen kasuan.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE FAKULTATEA
- Bizkaia -



Zaba.ldu

Masterrak hautazkoak izango diren **hiru ibilbide** edukiko ditu.

- Lehenengoan **eduki juridikoa azpimarratuko** da. Horretarako, ikasleak judizioko auzialdi ezberdinetan parteharzeko beharrezko dituen ezagupenak eskuratzeko materialak irakatsiko dira.
- Beste bide batean **giza eskubideetan sakonduko** da, hauen nazioarteko ikuspuntua eta eduki soziala kontuan hartuz.
- Azkenengo ibilbidean **ingurumen eta hirigintza gaietara hurbilduko** dira ikasleak.

Era berean, bakoitzaren lehentasunak kontuan hartuz, ikasleak gai ezberdinak uztartu edo bateratu ahalko ditu.

Masterrak ikasleek giza eskubideen inguruan prestakuntza sakon bat izan dezaten du **helburu**. Horretarako erabateko heziketa bat proposatzen da, giza eskubideen gaiaren inguruan adituak diren hainbat pertsonen emandako seminario, tailer, eta jardunaldiez osatua. Masterrak eduki zientifikoa dauka, ikerkuntzarako bidea zabalitzen duena. Baina era berean eduki praktikoa batez osatzen da. Honela, materia zehatz batzuk aukeratzen dituztenak, babes judizialari dagozkionak adibidez, profesionalki jarduteko prestatuak egongo dira.

PROGRAMA ETA EGITURA

Masterrak **hirurogei kreditu** ditu. Hautazkoak diren hainbat irakasgai aurki daiteke, bakoitzak bere espezializazio bidea jarraitu dezan. Honela, ikasleak, bere interesen arabera, bere heziketa profila osatu ahal izango du.

1. MODULUA: **teoria orokorra**

- TEORIA OROKORRA, ITURRIAK, ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK
- GIZA ESKUBIDEAK ETA PARTEHARTZE POLITIKOA
- GIZA ESKUBIDEAK ETA ATZERRITARTASUNA
- GIZA ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PERTSONALA
- GIZA ESKUBIDEAK ETA INTIMITATEA
- GIZA ESKUBIDEAK, KULTURA, GUTXIENGOAK

2. MODULUA: **giza eskubideak eta gizartea**

- EUROPAR ZUZENBIDEA ETA GIZA ESKUBIDEAK
- GIZA ESKUBIDEAK ETA ERAKUNDEAK
- GIZA ESKUBIDEAK ETA IPAR-HEGOAREN ARTEKO HARREMANAK
- ESKUBIDE SOZIALAK

3. MODULUA: **giza eskubideak eta ingurumena**

- GIZA ESKUBIDEAK ETA INGURUMENA I
- GIZA ESKUBIDEAK ETA INGURUMENA II

4. MODULUA: **giza eskubideak eta babes judiziala. Teoria eta praktika.**

- GIZA ESKUBIDEAK ETA BABES JUDIZIALA EUROAPAN
- GIZA ESKUBIDEAK ETA BABES JUDIZIALA, JURISDIKZIO KONSTITUZIONALA ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN JURISDIKZIOA

ORDUTEGIA ETA JARDUERA AKADEMIKOAK:

Klase presentzialak **arratsaldez** emango dira, aste bakoitzeko **astelehen eta astearteetan**. Beste jarduera batzuk, noizean-behin burutuko direnak, ostegun arratsalde, ostiral egun osoan edo larunbat goizean burutuko dira, ikasle eta kanpoko irakasleen aukeren arabera.

Klaseak **Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultatean** emango dira, **Sarrikon, Bilbon**.

ONARPEN ETA HAUTAPEN IRIZPIDEAK:

Gehienez 25 plaza daude. Masterrean onartua izan ahal izateko beharrezkoa da unibertsitateko edozein titulu ofizial izatea. Aurkeztutako hautagaiak aukeratzeko orduan honako irizpideak hartuko dira kontuan: expedientea, graduondoko ikasketak, lan esperientzia eta, beharrezkoa izanez gero, elkarriketa pertsonala.

AURRE-INSKRIPZIOA:

Aurre-inskripzioa egiteko epea 2009ko irailaren 20rarte zabalik egongo da. Atzerriko titulatuak kasuan zuzailaren 20rarte. Salbuespeneko kasuetan inskripzioak onartuko dira epe horietatik kanpo. Izen-emate hau Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco-ko web orrialdean gauzatu da. Era berean, izen-emate hau hurrengo helbide honetara eskaera bat igorri burutu ahal izango da: Master de Derechos Humanos, Derecho Administrativo, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Sarriko, Lehendakari Agirre Etorbidea, 83, 48015, Bilbao. Informazio gehiago behar izan ezker www.masterderechoshumanos.com kontsultatu edo galderak gizaeskubideak.masterra@ehu.es helbidera bidali.

IRAUPENA: Urte baten edo bi ikasturtetan egin daiteke.

TASAK:

Euskal Herriko Unibertsitateak ez ditu oraindik 2009-2010 urteari dagozkion prezioak zehaztu. Masterraren kostua 1.700 eurotako izango da gutxi gorabehera. Ordainketa hiru une ezberdinetan era zatikatu batean egin ahal izango da: iraila, abendua eta urtarrila.

DIRULAGUNTZAK:

Unibertsitateko masterrek autoritate ezberdinek eskeinitako dirulaguntzak dituzte. Informazioa Euskal Herriko Unibertsitateko/Universidad del País Vasco-ko webgunean aurkitu daiteke.

MASTERRAREN AURKEZPENA:

Ekainaren 30ean eta irailaren 15ean, 18.00etan, Masterraren aurkezpena Sarriko Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultateko gradu aretoan egingo da.

*Izapidetza prozesuan.